

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 5koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita sistema teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio eta txanda ireki bidez betetzeko hautaprobetako oposizio-faseko behin betiko emaitza eta zeinaren bidez irekitzen baita merezimenduak egiaztatzeko epea.

2023ko maiatzaren 17ko Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpenaren bidez, ondorengo lan-kontratudun finkoak hartzeko hautaketa-prozesurako deia egiten zen: komunikazio digitalerako teknikaria, sistema teknikaria, administrazioko eta zerbitzuetako teknikari eta administrari laguntzailea. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 98. zenbakian argitaratu zen 2023ko maiatzaren 25ean.

Era berean, 2023ko abenduaren 29an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 247. zenbakian argitaratu zen 2023ko azaroaren 27an Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak emandako ebazpena, zeinaren bidez argitaratu ziren sistema teknikari kategoriako lan-kontratudun finko bat txanda irekiaren bidez hartzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak eta zabaltzen zen aipatutako prozesuan izena emateko epea.

Ebazpen horren 13.1 puntuan adierazten denez, oposizio-lehiaketako emaitza eta kalifikazio guztiak oinarrietako 9. apartatuan adierazitako iragarki-tauletan argitaratuko dira. Horri jarraiki, Eusko Jurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu dira oposizio-faseko bi ariketen eta elkarrizketaren emaitzak.

Alegaziorako epeak agortuta, eta aipatutako ebazpenaren 13.5 puntuak dioenari jarraiki, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko da kalifikazio-epaimahaiaren erabakia.

Hori dela eta, Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 18. artikuluen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oposizio-faseko bigarren ariketako eta elkarrizketako emaitzak behin betikotzat jotzea.

Bigarrena.- Oposizio-faseko guztizko puntuazioak argitaratzea (I. eranskina)

Hirugarrena.- Hautagaiei hamabost (15) egun balioduneko epea ematea merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Eusko Jurlaritzaren iragarki-taula elektronikoan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2024ko ekainaren 5a

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.

I. ERANSKINA

Oposizio-fasea

NAN	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena	Lehenengo ariketa	Bigarren ariketa	Elkarriketa	Oposizio-fasea	Eraitza
***7780**	Tolosa	Belza	Igor	14,6	13,88	5	33,475	Gai
***1332**	Solla	Sampedro	Julen	15,8	19,06	7	41,8625	Gai
***2776**	Aguirre	Beguiristain	Hodei	11,6	Ez aurkeztua	Ez aurkeztua	-	Ez gai